


1. Afrikako paisaia

Erliebea

Afrikan hiru erliebe-unitate handi daude:

- Kontinente osoan **goi-ordoki handiak** daude. Horregatik, paisaiak itxura horizontala du. Goi-ordokiotan, zenbait basamortu daude; esaterako, *Sahara*.
- Zenbait mendikate. *Atlas mendiak* (iparraldean) eta *Drakensberg mendiak* (hegoaldean) dira aipagarrienak. *Kilimanjaro* da Afrikako gailurrik altuena.
- Zenbait sakonunek erdiko goi-ordokien uniformetasuna apurtzen dute; adibidez, *Niger ibaiaren arroak*.

Kostaldeak sargune eta irtengune gutxi ditu. *Esperantza Onaren* lurmuturra eta *Gineako golkoa* dira aipagarrienak.



Ibaiak eta aintzirak

Aldeak daude isurialde batzuetako eta besteetako ibaien artean:

- Isurialde atlantikoko ibaiak luzeak eta emaritsuak dira; esaterako, *Kongo ibaia*, Afrikako ibairik emaritsuenak.
- Isurialde mediterraneoko ibaiak laburrak eta emari gutxikoak dira, *Nilo* izan ezik, munduko ibairik luzeena baita.
- Isurialde indikoko ibaiak laburragoak dira isurialde atlantikokoak baino. *Zambezi ibaia* da aipagarriena.


Afrikan aintzira handiak daude. Hain zuzen, *Victoria* aintzira da kontinenteko handiena.

Klima eta landaredia

Ekuatoreak kontinentea erdi-erditik zatitzen du, eta hala ekuatoretik iparraldera nola hegoaldera, klimen banaketa simetrikoa da.

- Tropikoen arteko Afrikan **klima beroak** daude: ekuatoriala, tropikala eta basamortukoa. Landaredia klima aldatu ahala aldatzen da: hurrenez hurren, oihana, sabana eta basamortua daude.
- Kontinentearen iparraldean eta hegoaldean **klima epelak** daude: mediterraneo eta ozeanikoa.

Goi-lurretan, **goi-mendiko klima** dago.



JARDUERAK

Ulertu


1. Kokatu mapan. Bilatu Afrikako erliebe-elementu nagusiak.

- Idatzi zenbakiak dagokien lekuetan.

1. *Atlas mendiak*
2. *Sahara basamortua*
3. *Kilimanjaro*
4. *Somaliako penintsula*
5. *Esperantza Onaren lurmuturra*
6. *Drakensberg mendiak*
7. *Gineako golkoa*
8. *Madagaskar uhartea*
9. *Niger ibaiaren arroa*

- Idatzi ibai hauen izenak dagokion lekuan:

10. *Senegal ibaia*
11. *Nilo ibaia*
12. *Kongo ibaia*
13. *Zambezi ibaia*



2. Sailkatu. Markatu A (atlantikoa), M (mediterraneo) edo I (indikoa), ibai bakoitzaren isurialdea kontuan hartuta.

- Nilo ☐
- Niger ☐
- Kongo ☐
- Zambezi ☐

3. Kontzeptuak. Markatu esaldi zuzenak(z) eta okerrak (o)

- ☐ Afrikan klima mota ugari dago: ekuatoriala, tropikala, basamortukoa, ozeanikoa, mediterraneo eta goi-mendikoa.
- ☐ Mediterraneo itsasoko isurialdeko ibaiak luzeak eta emaritsuak dira; esaterako, *Nilo* ibaia.
- ☐ Afrikako kostaldeak sargune eta irtengune ugari ditu, bai eta itsaslabar asko ere.
- ☐ Afrikako sakonuneak kontinentearen hegoaldean daude.
- ☐ Ozeano Atlantikoaren isurialdeko ibaiak luzeak eta emaritsuak dira; esaterako *Kongo* ibaia.

Aplikatu

4. Interpretatu mapa. Idatzi hauen izenak:

- Bi basamortu:

- Bi lurmutur:

- Hiru ibai:

- Sakonune bat:

- Bi uharte:

5. Pentsatu. *Atlas* mendietatik *Drakensberg* mendietaraino zuzenean bidaiatuz gero, zer erliebe-unitate zeharkatuko zenituzke?